# Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

870

**140/1991 DEKRETUA, martxoaren 5ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organikoa arautzen duen apirilaren 12ko 107/1988 Dekretua aldatzen duena.**

Legealdi honetarako Jaurlaritzaren Programak hezkuntza arloan hartzen dituen helburuen ugaritasunak eta berezitasunak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila birrantolatzea eskatzen dute, Sail hori osatzen duten organu guztien ihardunen emankortasun hobea lortu ahal izateko. Birrantolaketa honek, baliabide publiko guztiak erabat probetxatzea ekarriko du, era honetan, Euskal Autonomi Elkarteko beharrei egokitutako eta Ikerketa arloari dagokion Hezkuntza Sistema eta azpiegitura lortu ahal izateko.

Saila sakonki birregituratzea ez da egin behar presaka, azterketa prozesu sakon bat burutu ondoren baizik.

Hala ere, bazter ezinezko beharrek, egitura organikoari buruzko eta indarrean dagoen Dekretuan aldaketa batzuk sartzea eskatzen dute une honetan, behin-betiko Dekretu berri bat landu dadin arte.

Aldaketa honen helbururik nagusiena, Bateragiteko Sailordetza sortzea da, honako hauek izango direla bere helburuak: Lehen aipatu diren helburuak unibertsitatez besteko arloetan bete ahal izateko, Sailaren ihorduna bultzatzea eta eratzea.

Horiek horrela, ez da osatu nahi orain bertan, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren Sailak sortze, kentze eta aldatzeari buruzko eta horien egitekoak eta ihardun arloak zehazteari buruzko otsailaren 6ko 15/1991 Dekretuko Azken Xedapenetatik Lehenengoan ematen den agindua.

Horiek horrela, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren proposamenez, Lehendakaritzak onarpena eman ondoren eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1991.eko martxoaren 5ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*Atal bakarra.*— 1. Bateragiteko Sailordetza sortzen da, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren honako eskuduntza hauek ematen zaizkiola Sailordetza horretako titularrari:

a) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ihorduna koordinatzea eta kontrolatzea unibertsitatez besteko arloan.

b) Hezkuntza eta Hezkuntza Administrazioko Sailordetzen kudeaketaren prozesuak eta prozedurak

## DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

870

**DECRETO 140/1991, de 5 de marzo, por el que se modifica el Decreto 107/1988, de 12 de abril, por el que se regula la estructura orgánica del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.**

La amplitud y especifidad de los objetivos del Programa de Gobierno para la presente legislatura en materia educativa, aconsejan una reordenación del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, orientada a lograr una mayor eficacia en la actuación de todos y cada uno de los órganos que lo componen. Esta reordenación, indudablemente, redundará en una optimización de todos los recursos públicos dirigidos a la consecución de un Sistema Educativo y de una infraestructura apropiada en el campo de la Investigación convergentes con las necesidades del País.

Una reestructuración en profundidad del Departamento es una tarea que no debe improvisarse, muy al contrario, requiere de un proceso de reflexión suficientemente sosegado.

Sin embargo, necesidades ineludibles obligan en estos momentos a introducir una modificación parcial del Decreto de estructura orgánica vigente hasta este momento, a la espera de la elaboración definitiva de un nuevo Decreto.

El objetivo principal de esta reforma es la creación de la Viceconsejería de Coordinación Departamental, dedicada a impulsar y ordenar la acción del Departamento en el cumplimiento de los fines más arriba indicados, en el ámbito de la enseñanza no universitaria.

Por este motivo, no se pretende ahora agotar el mandato contenido en la Disposición final primera del Decreto 15/1991, de 6 de febrero, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

De acuerdo con lo expuesto, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, con la aprobación de la Presidencia, previa deliberación y aprobación en el Consejo de Gobierno de 5 de marzo de 1991.

DISPONGO:

*Artículo único.*— 1. Se crea la Viceconsejería de Coordinación Departamental, en cuyo titular se desconcentran las siguientes competencias del Consejero de Educación, Universidades e Investigación:

a) Coordinar y controlar la actividad del Departamento de Educación, Universidades e Investigación en el ámbito de la enseñanza no universitaria.

b) Activar y ordenar los procesos y procedimientos de gestión de las Viceconsejerías de Educación y

bultzatzea eta antolatzea, horren agintaritza funtzionalpean egongo direla horretarako.

2. Horietaz aparte, Sailburuorde Bateragileak, legeek ematen dizkioten gainontzeko eskuduntzak, prerrogatibak eta egitekoak izango ditu.

3. Aipatu diren eskuduntzak bete ahal izateko, beharrezkotzat jo ditzan txosten, datu eta agiriak eskatu ahal izango dizkie gainontzeko Sailburuordeei Bateragiteko Sailordetzak.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egun berean jarriko da indarrean Dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 1991.eko martxoak 5.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

Administración Educativa, que, a estos efectos, se encontrarán bajo su dependencia funcional.

2. Además, el Viceconsejero de Coordinación Departamental ejercerá las demás facultades, prerrogativas y funciones que le atribuyan las disposiciones legales.

3. Para el ejercicio de las competencias referidas, la Viceconsejería de Coordinación Departamental podrá recabar de las restantes Viceconsejerías, cuantos informes, datos y documentos considere precisos.

DISPOSICION FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 5 de marzo de 1991.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

# Agintariak eta Langilegoa
# Autoridades y Personal

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak
## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

**871**

**154/1991 DEKRETUA, martxoaren 5ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Sailburuorde bateragilea izendatzen duena.**

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeak bere 18. ataleko j) idazatian, 26. ataleko 6. idazatian eta 29. atalean xedatzen duenarekin bat etorriz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak proposatuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1991.eko martxoaren 5ean egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*1. atala.*— Pedro Mendieta Garmendia jauna Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Sailburuorde bateragile izendatzen da.

*2. atala.*— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan izango ditu ondorioak Dekretu honek.

Vitoria-Gasteiz, 1991.eko martxoak 5.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

### DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

**871**

**DECRETO 154/1991, de 5 de marzo, por el que se nombra al Viceconsejero de Coordinación Departamental del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.**

De conformidad con lo dispuesto en los artículos 18, apartado j), 26, apartado 6, y 29 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 5 de marzo de 1991,

DISPONGO:

*Artículo 1.*— Nombrar Viceconsejero de Coordinación Departamental del Departamento de Educación, Universidades e Investigación a D. Pedro Mendieta Garmendia.

*Artículo 2.*— El presente Decreto surtirá efectos el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 5 de marzo de 1991.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.